

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Alkatearen eginkizunak eskuordetzea

Aurreikusita dut udalerritik kanpo egotea 2019ko uztailaren 24tik 28ra, egun biak barne, eta 2019ko abuztuaren 3tik 10era, biak barne.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoa onesten duenak, 44.1, 44.2 eta 47. artikuluetan xedatutakoa betez, kanpoan egongo naizenez eta nire karguaren eginkizunak bete ezin izango ditudanez,

Honen bidez, hau ebazten dut:

Lehenengoa. Nire eginkizun guztiak bigarren alkateorde Iker Fernández de Pinedo Grajales jaunaren esku uztea 2019ko uztailaren 24tik 28ra, egun biak barne.

Bigarrena. Nire eginkizun guztiak lehen alkateorde Iñaki Lopez de Bergara Astola jaunaren esku uztea 2019ko abuztuaren 3tik 10era, egun biak barne.

Hirugarrena. Ebazpen hau interesa dutenei jakinaraztea, eta udalbatzari horren berri ematea, egiten den lehenengo ohiko osoko bilkuran.

Laugarrena. Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Legutio, 2019ko uztailaren 10a

Alkatea

CÉSAR FERNÁNDEZ DE GAMARRA EGURROLA